

Espainiako gerra garaian euskara ikasteko liburu zifratua

Aranzadi elkarteko Karlos Almorza historialariak Iruñeko Ezkabako espetxean greziera ikasteko idatzitako liburu bat aztertu, eta euskara ikasteko erabiltzen zutela ondorioztatu du //4-5

«Iparraldean trinketearekiko beste zaletasun bat dago»

ENEKO MAIZ PILOTARIA

Villabonako pilotariak emaitza onak eskuratu ditu eta trinketeko eskuz banakako lehen mailako txapelketa jokatu du //7

Gazte sentitzen diren guztiei zuzendutako festa, Ikaztegieta

Herriko gazteek bigarren aldiz antolatu du Gazte Eguna; Korrikarekin batera hasiko dira, eta bazkaria eta gero, jaia nahi beste luzatzeko aukera egongo da //6



TOLOSA EUSKAL DOINU ETA DANTZAK

Tolosako Udaberri Dantza Taldeak antolatuta Dantzari Txiki eta Erromeria eguna izango da Tolosan, larunbatean; Euskal Herri osoko 350 bat dantzari txiki batuko dira festara eta Zerkausian Laiotz taldearen erromeria izango da //2



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera



Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57 birdcenter.org

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera



mendexapark.com
688 85 62 83
MENDEXA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Egunez eta gauez, haien erritmoan dantzatzeko

Udaberri Dantza Taldeak, Dantzari Txikia eta Erromeria antolatu ditu larunbaterako. 350 haur inguru bertaratuko dira, eta aurten, arratsaldeko saioan izango da berrikuntza.

Josu Artutxa Dorronsoro

Dagoeneko badira 62 urte Udaberri Dantza Taldea sortu zela. Beti izan dute helburu bakartzat euskal kulturaren zati garrantzitsua den dantza landu, ezagutarazi eta gizarteratzea. Horregatik, guztientzako egun borobila antolatu dute larunbatean, «bi ekimen desberdin izanik ere, herria euskal doinu, dantza eta tradizioz betetzeko asmoz».

Batetik, Tolosako Dantzari Txiki eguna antolatuko dute, hamalagarrenez, Euskal Herri osotik taldeak datozelarik: Arabatik Amurrioko Aiara, Bizkaitik Galdakaoko Andra Mari, Lapurditik Hendaiako Akelarre, Nafarroatik Iruñeako Muthiko Alaiak eta Berako Gure Txokoa, Nafarroa Behereatik Donibane Garaziko Garaztarrak eta Gipuzkoatik Errenteriako Ereintza eta Oiarzongo Haurtzaro arituko dira, etxekoekin batera. «Gutxi gorabehera, 350 haur inguru etorriko dira, eta begirale eta musikariak batuta, 400 lagun izango gara».

11:00etan hasita, Tolosako Alde Zaharrean nahiz erdigunean ibiliko dira dantzak eskaintzen. Eguerdian, talde guztiak Plaza Berrian elkartuko dira, elkartetara bazkaltzera joateko. «Taldea desberdinetako kideen arteko loturak sendotzea da asmoa». Taldeetik adierazi dutenez, «eskertza berezia egin nahi genieke laguntzeko boluntario gisa agertu diren Guraso Batzordeko kideei eta elkartetan bazkariak prestatuko dituzten herritarrei».



Astlehenean egin zuten prentsaurrekoa, Zerkausion. J. A.

Arratsaldean, 16:30eak aldera, «emanaldi berezia» izango da Plaza Berrian. «Aurten, aldaketa bat izango da. Orain arte, etorritako talde bakoitzak bere dantzak eskaini izan dizkigu. Larunbatean, ordea, plaza dantzak egiteko aukera izango da, taldeko fanfarrearen laguntzaz. Berez, haurrentzako zabalduko da deia, baina helduren batek dantzatu nahi izanez gero, ongi etorria izango da». Euria eginez gero, goizeko eta arratsaldeko saioak, San Frantzisko pasealekuko Herrikide ikastetxeko frontoi estalian egingo dira.

DANTZA GEHIAGO, ERROMERIAN
Dantzari Txikia amaituta, helduentzako euskal festa hasiko da, erromeriarekin. «Aurrez, fanfarrearekin batera, poteoa egingo dugu Plaza Zaharretik abiatuta, 19:00etan. 21:00etan, Zerkausion bilduko gara, lagun giroan afaltzeko. Ondoren, erromeria izango da Laiotz taldearen esku-

tik. Fandangoa eta arin-arinak, jauziak, plaza dantzak edota larrain dantza ez dira faltako».

«Herri guztiari irekia izango den ekimenera, euskal giroa atsegin duten guztiak daude gonbidatuta». Afarirako txartelak 15 euroren truke eros daitezke, Ikatza, Xirimiri, Asteasuarra eta Orbela tabernetan. Derrigorrezkoa ez bada ere, afarira base-rritarrez jantzita joatea eskatzen dute. «Bestela, jantzi gabe datorrena, jantzita dagoena baino nabarmenago geratuko da».

OSPAKIZUNA ELIKATUZ

Komunikazioari dagokionez ere, lanean hasiak dira taldeko kideak. Batetik, spot-a kaleratu zuten. Bestetik, Zerkausion bertan, *photocall* bat jarriko dute, argazkiak atera, eta bertaratuek oroitzen bat gorde dezaten. Azkenik, euren lana eta egunean eguneko zabaldu asmoz, sare sozialei garrantzia eman nahi diete. «Horretarako, egun honekin erlazionatutako edozein eduki, bi traolez lagunduta publikatzeko eskaera egiten dugu. Batetik #DTErromeria19 eta bestetik, #GureErritmoan». Horrela, urtetik urtera geroz eta arrakastatsuagoa izaten den eguna are gehiago elikatzea nahi dute.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Zerbitzaria. Amezketako Arkaitzpe jatetxean, neska bat behar da, zerbitzari lanak egiteko. Interesa dutenek, 676 485 316 telefono zenbakira deitu behar dute.

Antzinako yoga teknika irakatsiko dute kultur etxean

Igande goizean, egiazko adimenaren yoga praktikatzeko aukera izango da kultur etxean. Estresa eta osasuna ditu hizpide, «hirugarren begia» ireki asmoz.

J. Artutxa

Indiar jatorria duen ikasbidea da yoga. Gizabanakoak osotasunarekin bat egitea du helburu. Elkartasuna adierazten du, baina, berez, sendagarri bezala erabiltzen zen, eta hori da Asier Larra-koetxea ermuar meditatzaileak ezagutarazi nahi duena. Antzinako teknika bat irakatsiko du: egiazko adimenaren yoga. Jainismoaren aurretik sortu zen, 11.000 urte baino gehiago baititu. «Erokeria bat da, hinduismo-ko testuen arabera, yoga duela 4.000 urte sortu baitzen. Baina, eraginkorragoa eta azkarragoa da, eta hori demostratuko dut. Edonork egin dezake, berdin du itxura fisikoak, adinak edota generoak, gogor saiatuz gero, lor-zen baita».

Budismoaren arabera, 88.000 emozio baino gehiago ditugu. «Tibeteko doktrina hau soilik jende ahaltsuarentzat prestatuta dago». Asko idazten dela, baina inori ez zaiola interesgarri egiten dio. Orain, kontzeptu hauei buruz zerbait gehiago jakin daitekeela nabarmentzen du, «teknologia berrien garapenari esker». Txinan ikasi zuen berak, maisu batekin. «Bertan jakin nuen meditatzen aritzen direnetatik, soilik %0,8ak meditatzen duela. Meditatzen duzula uste duzu, erlaxatu eta hustu egiten zarelako, baina berez, tentsio handia duzu. Bestetik, teknika honen funtzioa hirugarren begi bat irekitzea dela ere ikasi nuen. Hasieran txorakeria

bat zela uste nuen, baina harritu egin nintzen, behin eta berriz praktikatzeari esker, ondorio positiboak dituela ikusi nuelako. Errealitatearekin, hau da, unibertsoaren sortzailearekin konektatzearekin batera, mina joan egiten da, energiaren funtzionamendua ezagutzen hasten zarelako».

Igandeko saioak, aldaketaren lau zutabeak hartuko ditu ardatz: kontrolik eza, burubiderik eza, barkamena eta eskertza. «Askotan, paranoikoak garela diogu, baina foku negatibo hori alde batera utz dezakegu, adimena erabiliz». 10:00etan hasi eta 14:00ak bitarte luzatuko da saioa. «Deskantsurik gabeko saioa da, beharrik ere ez delako izango». Meditazio tarteak izango dira, esterarik gabekoak, eta, aldi berean, «harrigarriak» diren teknika sendagarriak ere irakatsiko ditu. «Emozioekin jolasean ariko gara». Gazteleraz izango da, eta aurrez, www.yogadela-menteverdadera.wordpress.com blogean izena ematea eskatzen dute, gehienez, 120 laguneko taldea izango baita.

Aurrez aipatutako aldaketa emateko, estresetik eta osasunetik joko du Larrakoetxeak. «Doktrina batzuentzat, pentsamendua zentzumen bat da, baina zer da estresa? Sentsazio irreal bat da, zure nerbio sistema aldaketa baterako prestatzen duena». Hori horrela bada, adimenak lanean aritu behar duela dio, aurre egiteko. Estresa eta gaixotasunak bat datozela azpimarratzen du. «Estatistika batzuen arabera, AEBtako heriotza gehien lehen kausa bihotzekoak dira, eta bigarrena, minbizia. Gainera, gaixotasunen aurreko estres uneak, zelulei eragiten dietela erakutsi da. Hortaz, garrantzitsua da adimenari tentsioa ezabatzea erakustea».



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en



Dokumentaleko fotograma bat irudian, 2017ko abenduan Bilboko portuan jasotakoa. ATARIA

Euskal armagintzari buruzko dokumentala ikusgai, gaur, Tolosan

Tolosako Antxon Bandres Bidaiarien Txokoan eskainiko dute 20:00etan 'Gerra hemen hasten da' dokumentala; jarraian, Joseba Sanz zuzendariarekin solasaldia izango da.

Irati Saizar Artola Tolosa

Saudi Arabia helmuga zuen lehergailuz betetako itsasontzi bat prestatzen laguntzeari uko egin zion Bilboko suhiltzaile batek duela bi urte. Keinu hartatik tiraka, *Gerra hemen hasten da* dokumentala egin dute, eta ikusgai izango da, gaur, 20:00etan, Antxon Bandres Bidaiariaren Txokoan.

Duela urtebete aurkeztu zuen proiektua Joseba Sanz zuzendariak Tolosan, eta urtebeteren ondoren dokumentala eskuetan duela bueltatu da.

Bilboko suhiltzaile hura abiapuntu hartuta sortu dute ikus-entzunezkoa: «Keinu sinboliko hartatik, Bilbon mugimendu batzuk sortzen hasi ziren armagintzaren eta portuan gertatzen zenaren aurka, eta horko talde batean sartu nintzen eta forma

eman genion dokumentalari», azaldu du Sanzek. Orduan jakin ahal izan zuten hilabetero bidaltzen zituztela armak Bilboko portutik Saudi Arabiara, Yemen-go gerran erabiltzeko.

Izenburuaren arabera, neurri batean gerra Euskal Herrian hasten dela azaldu Sanzek. «Mugimendu taldeen mobilizazioei esker, Bilboko portutik botatzea lortu genuen barku hori, eta Santanderrera joaten da zamaketak egitera; hala ere, Euskal Herri osoan armagintza industria oso handia da, ekonomiaren parte garrantzitsua da, tamalez».

Lanpostuetan eta ekonomian eragiten duen arren, Sanzek beste aspektu bati ere begiratzen dio: «Hori guztia gainditu eta alde etikoari begiratu beharko genioke, esportazio horrekin amaitzeko».

Dokumentalean, Yemengo ka-

suan zentratu dira gehien, nahiz eta helmugak gehiago izan. Yemenen dagoen armen errealitatea ere jaso dute irudietan.

Ikusleari, ordea, Euskal Herrian zer-nolako armagintza ekoizpena dagoen jakinarazi nahi diote ikus-entzunezkoaren bidez. «Guk ere ez genekien atzean zer zegoen. Ongi Etorri Errefuxiatuak taldearen barneko komisio batean bildu ginen, eta hasieran ez genekien zenbaterainokoa zen; ikertu ostean ikusi dugu sekulako ekoizpena dagoela», argitu du zuzendariak. Gai horren inguruan gizartean hitz egin dadila nahi dute egileek.

Sanzek ez dauka formularik Euskal Herriko armagintza ekitzeko, baina, argi du Jaurlaritzak armagintza enpresei ematen dizkien diru laguntzekin amaitu egin behar dela. «Hortik etorri behar du lehen aldaketa».

Epaiaren zain geratu da Andoni Goikoetxea

Atzo epaitu zuten Espainiako Auzitegi Nazonalean gazteluarra. Fiskaltzak bederatzi urteko espetxe zigorra du eskatua; AVT elkarteak hamar eskatzen ditu.

Asier Imaz Gaztelu

Espetxean dagoen Aitor Esnaolaren kide izatea, eta ETA erakundearen hainbat zuloren ardura izatea leporatzen dio Espainiako justiziak, Andoni Goikoetxea gazteluarrari. Fiskaltzak gazteluarraren aurka bederatzi urteko espetxe zigorra eskatua zuen, eta epaketan urterik aipatu ez bazuten ere, bere horretan jarraituko du. AVT Terrorismoaren Biktimen Elkarte ere akusazio bezala dauka Goikoetxeak, eta 10 urteko zigorra eskatzen dute.

Epaiaketa saioa amaitu ondoren etxerako bidea hartu zuen

atzo, Goikoetxeak. 20 bat lagun joan ziren autobusez eskualdetik gazteluarrari babesa adieraztera.

<<BAIKOR>>

Epaiaketa hilabete inguruko tartea hartuko du epaia eman aurretik. Andoni Goikoetxea «baikor» zegoen epaiketa ondoren, saioa nola joan zen kontuan hartuta. Bere abokatuak absolutzioa eskatzen du.

Duela bi urte atera zen espetxetik Goikoetxea. 2013 atxilotu zuten ETako kide izatea leporatuta. Frantzia zazpi urteko espetxe zigorra bete ondoren, 2017ko azaroan geratu zen aske.



Eskualdetik Goikoetxeari babesa ematera joan dira autobusean. ATARIA



KLIKA, BERA STEGIARREK

Aurtengo Korrikaren edizioa Berastegitik pasatzen ez denez, herritarrek astelehen arratsaldean egin zuten erositako kilometroa. 35 lagun inguruk egin zuten Ezkurratik Basakabirako bidea euskararen aldeko klika egiteko. ATARIA



1934 eta 1945 urteen artean espetxe militarra izan zen Ezkaba mendia gailurrean dagoen San Kristobal gotorlekua; Bertan idatzi zuten 'Tratado de Gramatica Griega', euskaraz ikasteko. LOURDES HERRASTI

Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlari, Karlos Almorzak, Ezkabako espetxean 36ko gerra garaian greziera ikasteko idatzitako liburu bat aztertzen hasi eta euskara ikasteko liburu zifratua topatu du.

Euskal Enigma txiki bat

Karlos Almorza

Espainiako gerra zibilean, Nafarroako Ezkaba espetxean preso sartutako gudari talde batek grekoa ikastea erabaki zuen. Horretarako *Tratado de Gramatica Griega* izeneko lana osatu zuten. Gaztelaniaz idatzita dago eskuliburua eta hizki grekoz ageri diren adibideek ondoan gaztelaniazko itzulpena dute. Baina gramatika honek badu berezitasun bat: hizki grekoz idatzita dauden hitz eta esaldi guztiak irakurrita, euskara entzuten da.

Oraindik ere asko dago ikeritzeko. *Tratado de Gramatica Griega* lanak merezi du azterketa ikuspegi historiko edo filologikotik. Baina horrez gain, grekoz idatzitako esaldiak ikertu behar

dira, non eta nork, zer eta zertarako idatzi zituen jakiteko.

Argibide batzuk jakin ahal izan dira. Juan Mari Pallin preso plentziarra izan zen *Tratado de Gramatica Griega* idatzi zuena eta Alejandro Mendizabal mutrikuarra aritu zen irakasle (5. orrian argazkiak). Beste hiru ikasle ere tartean izan ziren: Feliciano Careaga barakaldarra, Vicente Etxezarraga zeanuriarra eta Josu Landa plentziarra. Gudari talde honek izugarritzko espetxe zigorrak jaso zituen, batzuek baita heriotza zigorra ere; nahiz eta 30 urteko kartzela zigorrean bihurtu zitzaizkien azkenean kondena. Jasotako zigorrak eta espetxe barruko bizi baldintzak zeintzuk ziren ikusita, gramatika hau idazten hasi ziren, pentsatzen zutelako Ezkabatik ez zirela bizirik aterako. Argigarria da grafia grekoz idatzitako pasarte bat, irakurritz gero honakoa uler-

tu daiteke euskaraz: «Abertzale-tasunak eraginda burutu dugu eskuko idatzi au».

BIZI BALDINTZA LATZAK

Ezkaba edo San Kristobal gotorlekua Ezkabarte (Nafarroa) udalerriko Ezkaba mendia gailurrean dago. 1934 eta 1945 urteen artean espetxe militarra izan zen. 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarren ondoren, 2.000 preso eduki zituzten bertan. Barruko bizi baldintzak oso latzak ziren eta 1937tik 1945era, 305 preso hil ziren gotorleku-espetxean.

Ezaguna da oso, 1938ko maiatzaren 22an 795 presok egindako ihesaldia. Horietatik 585 berriro harrapatu eta 225 fusilatu egin zituzten. Hiru presok bakarrik lortu zuten ihes egitea. Ezin aipatu gabe utzi, espetxetik atera eta fusilatu zituzten presoak. 1945. urtean itxi zuten gotorle-

ku-espetxea. «Guda amatu arren emen gagoz gu», utzi zuen idatzita Pallin presoak gramatika honetan. Ez dakigu lan honen kopiaren bat egin zuten, eta metodo hau ere beste gauza batzuetarako erabili ote zuten, baina garbi dago esaldi batzuek adierazten dutena: «Nik idatzi egiten dot eta zuk irakurri».

Beraz, *Tratado de Gramatica Griega* euskara ikasteko idatzita dago, bertan esate baterako, zenbakiak ikasteko taulak agertzen dira (ondoko orrian adibidea ikusgai). Grafia grekoz idatzita dagoenari, ondoan gaztelaniazko itzulpena jartzen zioten, baina grafia latindarrera, alfabeto


grekoa baliatuz idatzitakoaren ordaina eginez gero, euskara da irakurtzen dena. Liburu zifratua idatzi zuten, hortaz, Ezkabako espetxean.

TRESNA POLITIKOA

Badira gramatika honetan, greziar letrekin idatzitako esaldi batzuk, ondoan inongo itzulpenik ez dutenak eta oraindik ere deigarriagoak egiten direnak. Esaldi horietako bat da, adibidez, «on egin zeutson gixonak saldu zattu». Garbi dago esaldi hau ez dagoela idatzita euskara ikasteko, salaria nor den esateko baizik. Pentsatzekoa da, beraz, greziar gramatika adierazteko erabil-

Gramatika adierazteko erabiltzen zituzten adibideetan, kartzela barruan gertatutako gauzei buruz ari ziren

Euskara ikasteko inoiz erabili izan den formula original eta ausartenetarikoa izan zen Ezkaba espetxekoa




Ezkerrean, gramatika grekoaren alea; erdian Juan Mari Pallin egilea eta eskuinean Alejandro Mendizabal irakaslea. ATARIA

tzen zituzten adibide askotan, kartzela barruan gertatutako gauzei buruz ari zirela.

«Ikaragarriyak gertatu dira», «zaspi gizon urkatu ebazan orrek», «Kepak bere buru il eban» edota «auzoko gizonak il eban berberak il dau gure laguna» bezalako esaldiak ageri dira *Tratado de Gramática Griega* honetan. Esaldi hauetan zehazki zertaz ari diren jakitea gehiago kostako da, baina dena den, garbi dago euskara ikasi eta espetxe barruko gertakizunak idazteko asmatu zutela.

Euskara ikasteko inoiz erabili izan den formula original eta ausartenetarikoa izan zen Ezkabako espetxean erabili zutena, eta horrek argi erakusten du, euskara ikasteko baldintzak ez direla batera errazak izan. Tolosa inguruko herri askotako udaletxeetan gerra zibileko Saseta Defentsa Sistemari buruzko dokumentuak jasotzen ibili ondoren, garai hartako euskararen egoera islatzeko dokumentu esanguratsuak topatu dira: «...no existan otros letreros que los que están redactados en idioma español, tanto en calles, cementerios como demás sitios de esa localidad» (Adunako Udal Artxiboa, 173-8). Edota beste hau: «...en la que consigne el nombre de 'Miren' ya que ello lo prohíbe la legislación, pues los nombres deben ser siempre en castellano» (Asteasuko Udal Artxiboa, 442-5).



ων εγιν ζηυθων γιχωνακ σαλδου ζαττ
on egin zeutson gixonak saldu zatt

ξασπι γιχων υπκαθυ εβασαν ωρηη
zaspi gizon urkatu ebazan orrei

κηπακ βηρη βυρβα ιλ εβαν
Kepak bere burua il eban

ιδαθσι εγितην δωτ ετα εσx ιρακυρρ
idatz i egiten dot eta zuk irakurr

Cardinales		Traducción		
βατ	bat	uno	ιρυρωγι	irurogei
βι	bi	dos	λαρωγι	larogei
ιρυ	hiru	tres	ηυν	eun
λαυ	lau	cuatro	ηυν θα [ηθα] βαθ	eun da (eta) bat
βασθ	bost	cinco	βηρηηυν	berreun
σηι	sei	seis	ιρυρηυν	irureun
ζασπι	zazpi	siete	λαυρηυν	laureun
ζωρτζ	zortzi	ocho	βασθηυν	bosteun
βηθηραθζ	bederatzi	nueve	σηρηυν	seireun
αμαρ	amar	diez	ζωρθηρηυν	zortzireun
αμαικα	amaika	once	βηθηραθζρηυν	bederatziireun
αμαβι	amabi	doce	ανηι [μια]	anei [mila]
αμοζαζπι - ημηζαζπι	amazazpi-emeazpi	dieciséiete	ανηι θα βαθ	anei ta bat
αμαζωρτζι - ημηζωρτζι	amazortzi-emezortzi	dieciocho	βηρηανηι	berranei
ημηρηζπι	emeretzi	diecinueve	ιρυανηι	iruneai
ωγι	ogei	veinte	ηυν - ανηι	eun - anei

Gorritz, gehituta, hizki grekoz ageri diren hitzen ordaina, euskaraz. ATARIA

Egia da, gaur egun, eskola dela (unibertsitatea, ikastola, euskaltegia...) era tradizionalen ikasketak egiteko lekua, baina oraindik maiz entzuten dizkiegu frankismo garaiko ikasleei beren bizipen neketsuak euskara ikasteko garaian. Bi gauzengatik izan zen zaila garai horretan euskara ikastea: gure hizkuntza debekatua zegoelako batetik; eta bestetik, garai hartako gizartean ez zegoelako bitartekorik euskara ikasteko, nahiz eta frankismoaren azken urteetan aukerak areagotu. Gizarte osoari egokitu zitzaion egoera itogarri hori bizitzea.

Aurten, Korrikaren 21. edizioan, Jose Luis Alvarez Enparantz *Txillardegi* omendu nahi izan du AEK-k. Hizkuntzalari eta

idazlearen ibilbidea jasoz Kote Camachok zuzendu duen *Txillardegiren Klika* dokumentalean idazleak berak gogora ekartzen ditu Bilbon ingeniariartzako ikasle garaian ikasten zuela euskara, egunero, gauerditik goizaldeko hiruak arte. Edo nola praktikatzen zuen euskara Martuteneko espetxean preso egon zen garaian. Urte batzuk lehenago, Ezkabako espetxean gramatika grekoa idatzi zuten haiek bezala, zailtasun guztiei aurre eginez ikasi zuen euskara.

Egun hauetan Euskal Herria zeharkatzen ari den 21. Korrikak gogoan izango ditu guztiak. *Txillardegi, Tratado de Gramática Griega* idatzi zutenak, euskara ikasi dutenak eta ikasten ari diren guztiak. Denei eskainia.

Ahozko kultur sorkuntzaren ikerketa sustatuko dute

Villabonan kokatuta dagoen Mintzola Ahozko Lantegiak, 2.000 euroko bi proiektu sari eta doktorego aurreko ikerketa kontratu bat esleituiko ditu

Erredakzioa Amasa-Villabona

Bertsolaritza ez ezik, antzerkigintza, kantagintza, kontalaritza edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat aztertze asmoa duten proiektuak hartuko dira aintzat aurten go ikerketa deialdietan. Bi dira deialdiak: batetik, bi proiektu sari eskainiko dira, eta, bestetik, ikerketa kontratu bat.

2.000 euroko diru laguntza lortu ahal izango dute aipatutako kultur sorkuntzak aztertze xedea duten lan monografikoei eta master amaierako lanek; bi sari eskainiko dira. Proiektu sari hauen helburua da «ikertzaile gaztea edo hasiberria doktorego tesiraino eramango duen ibilbidean laguntzea» eta gerora horrek ekar lezakeen doktorego tesirako bulkadan eragitea.

Eta, hain zuzen, doktorego tesia egiteko asmoa duten ikertzaileentzako da aipatutako beste deialdia. Doktorego aurreko kontratu bat finantzatuko da, EHUn gauzatuko dena. Aukeratatutakoak doktorego aurreko urtebeteko kontratua lortuko du, hiru urte gehiagor luzatzeko modukoa.

Bi deialdietarako eskariak 2019ko maiatzaren 3ra arte aurkeztu ahal izango dira. Eskaria bideratzeko prozedura eta xehetasunak www.mintzola.eus atarian edota EHUKo Mikel Laboa Katedraren atarian topatu ahal izango dira.

Proiektu sarien deialdia Mintzola Ahozko Lantegiak eta EHUKo Mikel Laboa Katedrak gauzatzen dute eta kontratu deialdia, bi erakundeez gain, EHUKo Ikerketaren eta Euskararen Arloko Errektoreordetzek ere babesten dute. Deialdiok, jada, bide luzea egina dute,

2013an egin zen ikerketa kontraturako lehen deialdia eta 2014an proiektu sariei dagokiena. Orduetik hona hazi egin da bertsolaritzaren inguruan egindako ikerketa kopurua; oraingo deialdia, bertsolaritzaz harago, antzerkigintza, kantagintza, kontalaritza edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat aztertze ikerketa proiektuei ere zabalduko zaie.

HELDULEKU UGARI

Mintzola Ahozko Lantegia sortu zenetik hamar urte pasa dira, eta unibertsitateekin elkarlanean ari da etengabe bertsolaritza eta ahozko kultur sorkuntzaren presentzia esparru akademikoan sendotzeko. EHUREkin antolatutako ikerketa deialdiok azpimarratzekoak dira ahalegin horretan, eta bertsolaritza hainbat er-tzetatik ikertu da: «Eta, aurrera begira, zer? Bada, ikerketa hauen gizarteratzean eta aplikazioan egingo dugu ahalegina» aipatu du Beñat Gaztelumendik, ikerketa horietako batzuk aurkezteko egindako azken Mintzola Mintegian.

Mintzola Ahozko Lantegiak eta EHUKo Mikel Laboa Katedrak zuzenean babesten ez badi-tuzte ere, Tolosaldeko hainbat ikerlarik abian dituzte bertsolaritzaren inguruko hainbat ikerketa. Doktoregai tesia prestatzen ari da, adibidez, Oihana Iguaran amasarra. *Bertsolaritzaren agenda*. 'Agenda setting'ak bertsolaritzaren diskurtsoan duen eragina lana ari da prestatzen. Mikel Artola alegiarra, aldiz, master amaierako lana jorratzen ari da: *Bertsolaritzaren ikas-irakas-kuntza hezkuntza arautuko hiru-garren zikloan: didaktikarako eta irakasleen formaziorako proposamena*.

Larunbatean 2. Gazte Eguna ospatuko dute Ikaztegieta

Ikaztegietaiko Gazte Taldeak guztia prest du larunbaterako; gazte sentitzen diren guztiei zuzendutako eguna da, eta herritarrez gain, kanpokoak ere animatzen dituzte herrira.

Eneritz Maiz Etxarri
Ikaztegieta

Apirilaren 13a aukeratu zuten Ikaztegietaiko Gazte Taldeko kideek 2. Gazte Eguna ospatzeko. Iazko arrakastak bultzatuta, urte hasieran hasi ziren lanean. Leire Parra eta Alba Garmendia gazte taldeko kideak dira, eta «iazkoa askoz denbora gehiagorekin antolatzen hasi ginen, baina behin iazkoa eginda, aurten errazagoa egin zaigu eguna antolatzea», azaldu du Garmendiak. 20 bat gazte dabilta taldean eta, antolaketa arako eta lanak banatzeko erraztu egiten duela argitu dute.

Aurten, ordea, eguna oso goiz hasi beharko dute Korrikak zeharkatuko baitu herria. Eguna aukeratu ostean jakin zutela dio Parrak, eta 05:30erako jaiki beharko dutela. Ez du baztertu Korrikan parte hartu ostean, ohean sartzearena, eta Garmendiak gaineratu du, «ea horrek parranda ez duen asko baldintzatzen».

Lo kuluxkarekin edo gabe, 13:00etan frontenis txapelketako finalak jokatu dira. Aurten, iaz baino askoz ere bikote gutxiagok parte hartu du, baina, hala ere pozik daudela azaldu du Parrak, eta finalaz gozatzeko aukera egongo dela gaineratu du.

Jarraian, 70 bat pertsona aurreikusten dituzte plazan egingo duten bazkarian, nahiz eta, «beti



1a 100 pertsona elkartu ziren, iaz, plazan bazkaltzeko. E. MAIZ

dauden egunean bertan agertzen diren batzuk». Bazkalostea girotzeko bingo musikatu egingo dute; zenbakiekin beharrean, abestiekin egingo dute jokoa.

Mahaitik altxatu eta poteorako erritmoa Alegiako txarangak jarriko die. «Iaz elektrotxaranga batekin egin genuen poteoa, eta oso gustura geratu ginen. Ezin zuten, eta inguruan zer genuen begiratu, eta Alegian bertan txaranga bat dagoenez beraiekin probatzea erabaki genuen», argitu du Garmendiak, eta «gazteak dira eta aukera bat eman nahi izan diegu», azpimarratu du Parrak.

Afarietarako ogitartekoak prestatuko ditu Gazte Taldeak, baina zahagiardora jatekoa hartuta joatea ere posible izango da.

Kontzertuen artean, guztiak eskualdekoak izango dira, eta gazteek nabarmendu dutenez, Basati taldeak bere lehen kontzertua eskainiko du Ikaztegieta.

EGITARAUA

2. Gazte sentitzen diren Eguna

05:30. Korrika eta ondoren, gosaria, Euskara Taldekoen eta udalaren eskutik, Herrigintza elkarteak.

13:00. Frontenis txapelketako finala.

14:30. Bazkaria.

Ondoren. Bingo musikatu.

18:00. Poteoa Alegiako txarangarekin.

21:30. Zahagiardoa ogitartekoekin.

23:00. Kontzertuak: Basati, Eztanda eta Lilith Selektahpowered by Basagain.

Ondoren. Gau jolasak.

Bidaniako Ostatuko lehiaketara aurkezteko epea, bukatzear

E. Maiz Bidania-Goiatz

Bidania-Goiatzko Udalak Bidaniako Herri Ostatuaren kudeaketa lehiaketara atera zuen, eta interesatuek beraien eskaintzak udaletxean aurkezteko epea hilaren 15ean bukatuko da.

Martxoaren 13an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Urte bateko kontratua izango da, eta bi aldeek adosten

badute bost urtera luzagarri izango da kontratua. Esleipendunak hilero 100 euro gehi BEZa ordaindu beharko du. Kanona urtero berrikusiko da. Udalak edo udalarekin akordioa duten elkarteek ekimenak antolatzeke erraztasunak jarri beharko ditu. Garbiketa eta jarraipenaren ardura bereak izango dira, eta horrez gain, bertako produktuak eskaini beharko ditu menuan.

Udako ludoteka zerbitzurako, lan eskaintza

IKAZTEGIETA // Ikaztegietaiko Udalak udan ludoteka zerbitzua eskainiko du, eta horretarako lan eskaintza atera du. Beharrezkoa da euskara jakitea eta 18 urte beteak izatea edo urte honetan betetzea. Horrez gain, haur heziketarekin zerikusia duten ikasketak izatea edota aisialdirako hezitzaile edo denbora libreko monitorea titulua izatea baloratu da. Interesatuek hilaren 30a baino lehen eman beharko dute izena, udaletxean.

Dantza tailerreko ikasleen emanaldia izango da, ostiralean

ALEGIA // Sutarri dantza taldeak ematen dituen dantza tailerretan ikasitakoak erakutsiko dute ikasleek. 17:00etatik aurrera, kultur etxean, ikastaroan landutakoak erakutsiko dute, eta herriarrei bertaratzeko gonbita luzatu dute.

Sagardotegira irteera antolatu du Ugarteko Amuarrain elkarteak

UGARTE // Amezketako Ugarte auzoko elkarteak urtero moduan Petrategi sagardotegira irteera antolatu du. Maiatzaren 4an, 12:30ean abiatuko dira autobusez, eta 18:00etan egingo dute buelta. Sagardotegira joan nahi duenak elkartearen bertan edo Goikoetxea tabernan eman beharko du izena, eta azken eguna hilaren 27a da. Ordainketa egunean bertan egingo da autobusera igo aurretik. Helduek 35 euro ordaindu beharko dituzte.

Juan Mari Olanok hitzaldia eskainiko du, gaur, Lizartzan

LIZARTZA // Lizartzako EH Bilduk hitzaldia antolatu du gaurko. Erabaki lelopean, Juan Mari Olano izango da hizlaria, eta 19:30ean hasiko da plazan bertan. Hitzaldiaren ostean, bertaraten diren guztientzat luntxa egongo da.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Imanol Garcia Landa
Amasa-Villabona

Trinketeko eskuz banakako lehen mailako txapelketa jokatu du Eneko Maizek (Villabona, 1996). Behar Zana elkarteko pilotariak denboraldia hirugarren mailan hasi zuen eta hura irabazi ondoren, bigarren mailan lehiatzeko aukera izan zuen jarraian, eta txapelketa horretan ere gailendu ostean, lehen mailan jokatzeko txartela eskuratu du.

Denboraldi berezia izan da aurtengoa, bi koska igotzea lortu baitituzu. Nola izan da?

Iaz hasi nintzen Iparraldeko hirugarren mailatik jokatzeko, eta zorte txarra izan nuen eta esku-muturra puskatu nuen, eta ezin izan nuen jarraitu. Aurten arantza hori ateratzeko asmotan txapelketa jokatzeko hasi ginen; partidak ondo joan dira eta zorionez urtebete bi maila igotzeko aukera izan dugu. Uste dut salto handia dela. Hurrengo urtera begira, aurkari gogorrakoak izango dira, noski, baina gogotsu gaude.

Ez da ohikoa izango bi maila segidan igotzea, ezta? Beste norbaitek egin du hori?

Nik ez dut ezagutzen inor, baina ziur izango dela norbait hori egin duena. Aurten niri tokatu zait.

Iparraldeko txapelketa dela komentatu duzu. Gipuzkoan beste pilotariren bat badago?

Aurten Gipuzkoako Txapelketan nirekin bikote izan den Oier Gurutzalde astigartarrak ere jokatu du Iparraldeko txapelketa. Bera bigarren mailatik hasi zen, aurretik igotzea lortu zuelako, baina ez zuen lortu aurrera egitea. Egia da hemengo trinketekoarekin alderatuta, han beste zaletasun bat, beste maila bat da-

«Beste ilusio batekin joaten gara Iparraldera trinketean jokatzera»

ENEKO MAIZ PILOTARIA

Trinketean emaitza nabarmenak lortzen ari da Eneko Maiz pilotari billabonatarra. Datorren denboraldian lehen mailan ariko da.



I.G.L.

uste dut. Profesional maila bat dago, eta gero afizionatuen lehen mailan dago. Maila handia da, eta, adibidez, aurreko urtean lehen mailan irabazi zuenak aurten profesionaletara igo dela. Beraz, ilusioa ere hor dago, ea hurrengo urtera begira gauzak ondo joaten diren eta noizbait Waltari bezalako pilotari baten aurka, edota Munduko Txapelketaren finala jokatu nuen Ducassou eta beste pilotari handi askoren aurka jokatzeko aukera dudan.

Noiz hasten zara zehazki?

Urtarrilean hasten da, eta txapelketa luzea joaten da. Bi hilabete luzez, astero-astero, izaten dira partidak. Gero, ez da ziurtatzen lehen mailan irabazita profesionaletara igoko dizuenik. Beti ere, ikusten dute nolako maila duzun, eta beraiei gustatuz gero, baliteke partidak jokatzeko beraien aurka.

Munduko Txapelketa urrian jokatu zenuen, eta txapeldunorde izan zinen.

Munduko Txapelketara joatea bakarrik oparia da. Hamar egun

goela. Jende askoz gehiago dago. Han lau maila daude eta bakoitzean jende pila bat dago, eta hemen betiko lau katu gaude lehian. Beste ilusio batekin joaten gara hara, badakigulako jendea izango dela ikusten, partida gogorrak izango direlako, eta badakigulako gure maila eman beharko dugula partida irabazteko.

Noiz hasiko duzu lehen maila-

ko denboraldia?

Hori hurrengo urtean izango da, 2020an. Baita binakako txapelketa ere. Aurten buruz burukoan bakarrik atera gara Iparraldean, eta ikusiko dugu datorren urtean binakakoan ariko garen.

Eta lehen mailan zeinen aurka ariko zara, Waltari eta enparauen aurka?

Jendeak agian konfusioa duela

eder pasatu genituen, eta zortez finalera iristea lortu nuen. Nahiz eta finalean jokorik onena egin ez, eta nire onena ez eman, munduko txapeldunorde geratuta, nik uste maila polita eman nuela. Pena da finalean gerra pixka bat gehiago eman nahi niola Ducassouri, baina ez zen horrela gertatu, eta, hala ere, pozik nago pasa genuen astearekin eta baita emaitzarekin ere.

Hain justu, orain gutxi omenaldia egin zizueten Behar Zana elkartekoe.

Orain bi urte 22 urtez azpiko Munduko Txapelketa jokatzeko aritu nintzen Argentinan eta omenaldia egin zidaten. Aurten goan bereziagoa izan zen, pilota eskolako haur gehienak zeuden txuriz jantzita, eta pasilloa egin zidaten, eta hunkitu egin nintzen. Behar Zana haur guztien sinadura duen kamisetarekin koadro bat oparitu zidaten eta oso oroigarri polita da.

Bestalde, denboraldi honetan Gipuzkoako Txapelketa irabazi duzu banaka eta binaka.

Behar Zana elkartearekin irabazi ahal izan ditut bi txapelketak, lehen mailan. Buruz burukoa irabazi dudan lehen aldian izan da. Iaz ondo nengoen, baina esku-muturra hautsi nuen eta binakakoa ere ezin izan nuen jarraitu.

Trinketean bukatu duzu denboraldia?

Orain Grabni txapelketa jokatzeko ari naiz, Gipuzkoako selekzioarekin. Nahiz eta uda aldean hemen ez izan txapelketarik, partida dezentet jokatzeko ditugu trinketean. Pasa den urtean zortea izan nuen Iparraldetik deitu baitzidaten bigarren mailako profesionalekin partida batzuk jokatzeko. Aurten ere deia jaso dut behintzat entrenatzera bertara joateko.

Eskualdeko lau, buruz burukoan


Altuna, Artola, Jaka eta Peña pilotariak ariko dira lehen mailako txapelketan

Asier Imaz

Jokin Altuna amezketarra egungo txapelduna, Iñaki Artola alegiarra, Erik Jaka lizartzarra eta Jon Ander Peña tolosarrak jokatu dute ofizialki apirilaren 19an hasiko den txapelketa. Finala ekainaren 2an, Bilboko Bizkaia pilotalekuan, izango da.

Jon Ander Peñak aurre kanporaketa jokatu du larunbatean, apirilak 13, Iruñeko Labrit pilotalekuan Agirreren aurka. Aurrera eginez gero, Etxeberria eta Zabala arteko norgehiagokaren irabazlea izango luke tolosarrak aurkari. Ondoren, Rezusta eta Elezkano II.aren adarrean sartuko litzateke.

Jokin Altunari Iker Irribarriaren multzoan tokatu zaio. Victor eta Bakaikoaren arteko partidatik aterako da Irribarriaren aurkaria. Hortik, azkenik, amezketarrarena.



Buruz buruko txapelketaren aurkezpena egin zuten, atzo, Bilbon. ASPE

MULTZOAK

A multzoa. Victor vs Bakaikoa; Irribarria; Altuna III.

B multzoa. Agirre vs Peña II; vs P. Etxeberria vs Zabala; Rezusta; Elezkano II.

C multzoa. Retegi vs Laso; Bengoetxea VI; Urrutikoetxea.

D multzoa. Artola vs Arteaga II; Jaka; Ezkurdia.

Iñaki Artolak txapelketako lehen partida Arteaga II.aren aurka jokatu du. Lasartearra gaituz gero Erik Jaka izango du aurkari. Kasu horretan, eskualdeko ordezkari batek Joseba Ezkurdiaren aurka jokatu du luke.



ASTEAZKENA, 2019KO APIRILAK 10
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



‘Tolosaldeko Ataria’ bertatik bertara

Inmakulada ikastetxeko eta Adunako herri ikastolako hainbat ikasle izan dira erredakzioan ‘Erakutsiz ikasi’ proiektuaren barruan.

Erredakzioa Tolosa

Erakutsiz ikasi proiektuak beste bi geldialdi egin ditu.

Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolako Gizarte Integrazioa graduiko ikasleak eta Adunako herri ikastolako LH 5. eta 6. mailakoak izan dira TOLOSALDEKO ATARIA-ren erredakzioan. Komunikazio taldearen lana bertatik bertara ezagutzearekin batera, ATARIA IRRATIA-ko *Pasahitza* saioan hartu dute parte.

TOLOSALDEKO ATARIA-k egunero-egunero egiten duen lanaren berri eman nahi die herritarrei, Tolosako San Estebango egoitza irekiz. Eskualdeko ikasleek ostiralean dute egoitzara gerturatzeko aukera.



Inmakulada Lanbide Ikastolako Gizarte Integrazioa graduiko ikasleak. ATARIA



Adunako herri eskolako LH 5. eta 6. mailako ikasleak ere izan dira ‘Ataria’-ren erredakzioan. ATARIA



ASTEAZKENA 10

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. I. Ekintzailatza Jardunaldia 17:00etan, Topic zentroan. Harrera eta ongi-etorria egin eta gero, 17:15ean hasiko da Alejandro Vesga Araneren tailerra; 18:30ean *Posible al da Euskadin ekitea?* mahai-ingurua egingo dute Aitor Lizartzak, Alex Navarrok eta Esther Fernandezek; eta 19:35ean hasiko da Taig McCarthyren hitzaldia.

Alegia. Loatzo musika eskolako tresna audizioetan klarinetaren txanda, 18:30ean, kultur etxean.

Tolosa. Tolosako Foro Errepublikanoaren aurkezpena 19:30ean, kultur etxean, ondoren hitzaldiak egongo dira: *Antecedentes del exilio II. República de 1931 a 1939* Antton Karrera-ren eskutik, Josu Chuecaren *La Retirada de 1939 el exilio permanente*, eta *Erbestea, 80 urte eta gero*.

Anoeta. *Espetxeen funtzioa sistema kapitalistan* hitzaldia, 20:00etan, Cesar Manzanos soziologoa eskutik, gaztetxean.

Tolosa. *Gerrahemen hasten dako dokumentala* 20:00etan, Antxon Bandres Bidaiarien Txokoa.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Antzeko giroa berriz ere. Goizean apenas izango da euririk, nahiz eta, astear-tearekin alderatuz hodeitza handiago izan. Arratsaldean berriz ere giroa ezegonkortu eta zaparrada batzuk botako ditu. Hala ere, zaparradak ahulagoak eta tartekatuagoak izango dira, beraz litro gutxi pilatuko dira. Haizeak egun osoz ipar-mendebaldetik joko du eta horrekin tenperatura maximok zertxobait jaitsiko da, eguneko erdiko orduetan 12-14 gradu bitartean joaz goia.

Bihar. Giro motel eta triste. Egun osoan ipar-mendebaldeko haizea nagusituko da eta horrekin hodeiak nagusi izango dira zerruan, giro estalia utziz. Hodei horiek tarteka euria utziko dute. Euria zirimiri moduan edo zaparrada txiki moduan botako du eta batez ere arratsalde partean botako ditu.

Tenperatura apenas mugituko da eta maximoak 12-14 gradu bitartean joko du goia eguneko erdiko orduetan.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Tolosaldea Garatzenen tartea, *Kale Kantotik* Ainhoa Mendiluze eta Oskar Tenaren artearen txokoa.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

15:00. Playback Ataria. Adrianna Gaultier Djaren musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko onena.

20:00. (H)ari naizela. Imanol Artolak, Felixek, gidatutako bertso saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

16:30. Ur eta lur.

17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

22:00. Denbora da poligrafo baka-rra.

22:30. Galdegazte.

23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Jesus Mari Etxebeste Elozegi, Gernikako Arbolen Lorategiak, 3.

Telefono zenbakia: 943 65 10 40.

Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza, Amarotz auzoa, 9.

Telefono zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Atarikideentzat bi afari bonu ditugu

‘Erromeria’ egunean bi pertsonarentzako afaria

Apirilak 13, Larunata 21:00 • Tolosa, Zerkausia.

Atarikideentzat bi matrikula ditugu

‘AEK Euskaltegirako bi matrikula’ zozketan

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte: **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

ZORION AGURRAK

943 65 56 95 • ataria@ataria.eus